

Proiektuaren deskribapena→

Proiektuaren izena→ Aisialdia Berpiztuz

Gure proiektua hasiera batean festetarako autobusak antolatzea zen, baina gaur egungo aisialdia hobeto aprobetxatzeko beharra ikusirik plan desberdinak antolatuko ditugu. Hau da, herriko festak edo egun bereziak daudenean Instagram bidez iragarki bat bidaliko dugu ea norbait joango den eta horren arabera, gure lana autobusak antolatzea izango da, joan eta bueltarako.

Baina horretaz gain, noizbehinka egunpasak ere antolatuko ditugu eta gainera ez dira bakarrik gazteentzat izango. Planaren arabera jende desberdina etorri ahal izango da, gazteetatik hasita agureetaraino. Planak desberdinak izan daitezke, herri bat bisitatzea edo ezagutzea, zenbait ginkana, denbora librea uztea toki berri batean, jendearekin kontaktuan egotea...